

# → AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 71. alea

DATA: 2026/04/30

## GUREAN

### AGENDA 2030

Agenda 2030 Ikastolen eta ikastetxeen iraunkortasunerako eta kalitaterako hezkuntza-programa bat da, ingurumen-arazoen konponbidean parte hartzeko ezaguera, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta konpromisoa garatzea xede nagusi duena. Azken bi ikasturteetan jasagarritasuna izaten ari da gai nagusia. Gure ikasleei auzoko bide gorriaren proiektua diseinatzeko eskatu zieten eta buru-belarri lan egin ondoren, auzokideei aurkeztu diete. Agendako bozeramaileek hartu dute ardura hori aste honetan. Ea etorkizunean bide gorri berri bat ikusten dugun Bidebietan!



## GURE INGURUAN

### DANTZARI TXIKI EGUNA

**NOIZ: MAIATZAK 1**  
**NON: ERRETERIA**

Lapurdi eta Gipuzkoako 380 haurrek parte hartuko dute.

Goizeko 11:30ean emango diote hasiera emanaldiari Koldo Mitxelena plazan eta ondoren herriko kaleetan zehar ibiliko dira 13:30 arte. Ordu horretan Zumardian elkartuko dira talde guztiak eta bertan emanaldi nagusia eskainiko dute.

Arratsaldean, 16:30ean, erromeria egongo da Eneko Apaolaza, Iraitz Urkizu eta Garazi Etxebesteren eskutik.



## BAZENEKITEN?

**GURE HHko IKASLEEK ASKO DAKITELA DORDOKA ETA BALEEI BURUZ?**

HHko 3., 4. eta 5. mailakoek bisita berezi bat izan dute aste honetan. Donostiako Aquiriumetik Irati etorri zaie itsasoaren sekretuak kontatzera.

**ZUEN PROPOSAMENAK  
HONA BIDALI:**  
[melvira@herriametsa.eus](mailto:melvira@herriametsa.eus)